

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 26ko 695/2024 Erabakiaren bidez onetsitako 2025eko deialdiaren zenbatekoa igotzeari, zeina Basogintzarako Laguntza Planarentzat bideratu baita

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 26ko 695/2024 Erabakiaren arabera, Basogintzarako Laguntza Planaren deialdia onetsi zen urterako, aurrekontu partida hauen kontura eta urteko ordainketa hauen arabera:

- 40106. G/172400/76290414 "Mendi publikoetarako laguntzak 2025" partida:
 - 2025eko zenbatekoa: 800.000,00 euro.
 - 2026ko zenbatekoa: 600.000,00 euro.
- 40106. G/172400/76290416 "Mugaketak eta mugarritzeak 2025" partida:
 - 2025eko zenbatekoa: 50.000,00 euro.
 - 2026ko zenbatekoa: 50.000,00 euro.
- 40106. G/172400/78000402 "Mendi partikularretarako laguntzak 2025" partida:
 - 2025eko zenbatekoa: 200.000,00 euro.
 - 2026ko zenbatekoa: 200.000,00 euro.

Erabaki horretan jasotzen denez, kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako muga barruan, baita aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, deialdi osorako hasiera batean gordetako zenbatekoa adina izango dira.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta haiek aztertu ondoren, eskaera guztiei erantzuteko behar den dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu ondoren, ondorioztatu da deialdia ebazteko behar den zenbatekoak aurrekontu erabilgarritasuna gainditzen duela, eta, beraz, beharrezkoa da deialdian ezarritako lehentasun irizpideak aplikatzea. Horren ondorioz, zenbait inbertsio ukatu egin dira, partez edo osorik, kreditu erabilgarria agortzeagatik, eta, azkenean, deialdia Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 20ko 278/2025 Erabakiaren bidez ebatzi da, honako xehetasun hauen arabera:

- 40106. G/172400/76290414 "Mendi publikoetarako laguntzak 2025" partida:
 - 2025eko zenbatekoa: 800.000,00 euro.
 - 2026ko zenbatekoa: 600.000,00 euro.
- 40106. G/172400/76290416 "Mugaketak eta mugarritzeak 2025" partida:
 - 2025eko zenbatekoa: 50.000,00 euro.
 - 2026ko zenbatekoa: 50.000,00 euro.
- 40106. G/172400/78000402 "Mendi partikularretarako laguntzak 2025" partida:
 - 2025eko zenbatekoa: 199.959,25 euro.
 - 2026ko zenbatekoa: 184.185,62 euro.

Baldintzak bete bai, baina aurrekontuko kreditu ezagatik ukatu ziren eskaerei aurre egin ahal izateko, eta Mendi Zerbitzuaren aurrekontu partidetan berresleitu daitezkeen soberako kredituak

daudenez, deialdiaren zenbatekoa igotzea erabaki da, laguntza hauen bigarren ebazpen bat izapidetzeko, banaketa honen arabera:

- 40106. G/172400/76290414 "Mendi publikoetarako laguntzak 2025": 109.091,38 euro.
- 40106. G/172400/76290416 "Mugaketak eta mugarritzeak 2025": 91.392,03 euro.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 8/2023 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Arabako Basogintzarako Laguntza Planaren oinarri arautzaileek 11. artikuluan ezartzen dutenez, deialdia ebatzi ondoren, aurrekontu partidan kreditu gehikuntzarik izan bada beste partida batzuen transferentziengatik, edo emandako dirulaguntzei uko egiteagatik, haiek deuseztatzegatik edo zenbateko txikiagoak ordaintzeagatik, eta aurrekontuko kreditua nahikoa izan ez delako zenbait eskaerari erantzun ez bazaie, kreditua eskaera horietan erabiliko da, ezarritako lehenetasun irizpideei jarraikiz.

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 14ko 588/2025 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldirako aurrekontuko M_T00/2025/0000000119 kreditu transferentziako espediente onetsi zen. Espediente horrek Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldirako gastu aurrekontuko 40106. G/172400/76290414 aurrekontu partida ("Mendi publikoetarako laguntzak 2025") eta 40106. G/172400/76290416 aurrekontu partida ("Mugaketak eta mugarritzeak 2025") hornitzen ditu, deialdiaren lehenengo ebazpenean erantzun ezin izan ziren espedienteei erantzuteko beharrezkoak diren zenbatekoekin.

Bestalde, ikusi da deialdiaren lehenengo ebazpenean ez zela eman, akats baten ondorioz, 1.206,00 euroko zenbatekoa, 07-2025-5185 espedienteari dagokiona, 40106. G/172400/78000402 partidaren kontura ("Mendi partikularretako laguntzak 2025"). Beraz, bigarren ebazpen honetan partida horren esleipena aipatutako zenbatekoan igotzea ere proposatzen da.

Azaldutako guztiagatik, hasierako kreditu erreserba igotzea onestea eskatzen da, honako zenbateko hauetan:

- 40106. G/172400/76290414 "Mendi publikoetarako laguntzak 2025": 114.061,38 euro.
- 40106. G/172400/76290416 "Mugaketak eta mugarritzeak 2025": 91.392,03 euro.
- 40106. G/172400/78000402 "Mendi partikularretarako laguntzak 2025": 1.206,00 euro.

Nahitaezko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 26ko 695/2024 Erabakiaren bidez onetsitako 2025eko deialdiaren zenbatekoa igotzeari, zeina Basogintzarako Laguntza Planarentzat bideratu baita, banaketa honen arabera:

- 40106. G/172400/76290414 "Mendi publikoetarako laguntzak 2025": 114.061,38 euro.
- 40106. G/172400/76290416 "Mugaketak eta mugarritzeak 2025": 91.392,03 euro.
- 40106. G/172400/78000402 "Mendi partikularretarako laguntzak 2025": 1.206,00 euro.

Bigarrena. erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALÉZ VICENTE

Nekazaritza Sailaren diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNANDEZ SARABIA